



Zuzenbideko eta Kriminologiako Graduetako kanpoko curriculum praktiken ARAUDIA

(Fakultateko Batzarrak onartua, 2013ko ekainaren 21ean)

1. artikulua.- Nahitaezko kanpoko praktikak: definizioa, helburuak eta izaera

“Nahitaezko kanpoko praktikak” izeneko irakasgaia dago Zuzenbideko eta Kriminologiako graduetako ikasketa planetan, eta 12 ECTS kreditu ditu.

Ikasleek kanpoko praktika akademikoak egin ohi dituzte beren prestakuntzaren parte gisa. Unibertsitateak praktikak gainbegiratzen ditu eta aukera ematen die ikasleei beren prestakuntzan lortutako jakintzak aplikatzeko eta osatzeko. Gainera, praktikek laguntzen diete lan profesionalerako gaitasunak eskuratzen eta, ondorioz, lan merkatura arinago sartzen eta ekintzailetza ahalmena garatzen.

Praktikak egiten dira unibertsitatearen erakunde laguntzaileetan; hala nola Estatuko eta nazioarteko enpresa, erakunde eta entitate publiko nahiz pribatuetan, haiekin sinatutako lankidetzak hitzarmenen bidez.

Praktikak ez dira inola ere lan jarduera bat. Kanpoko praktika akademikoen helburua prestakuntza izanik, ez dute sortuko lan harremanei dagokien inolako betebeharririk eta ez dira hartuko lanpostuaren berezko lan prestazioaren ordezkotzat. Praktiketako egonaldiak eskola aseguruak estaliko ditu, 28 urtetik gorako ikasleen kasuan izan ezik.

1.1.- Helburuak

Irakasgai honen xedea da ikasleen prestakuntza osatzea, kanpoko praktikak eginez Zuzenbidearen eta Kriminologiaren arloetan, eta helburu akademiko hauek ditu:

- Jarduera profesionalean trebatzea.
- Praktikan jartzea graduan eskuratutako jakintza teorikoak eta praktikoak, erakunde laguntzaile batean.
- Gaitasun kritikoa eta gogoeta gaitasuna sustatzen dituzten lanak egitea, erabakiak hartzen trebatzea, eta praktikan jartzea fenomeno juridikoak aztertzeke eta laburtzeke gaitasuna.

2. artikulua.- Eragile nagusiak nahitaezko praktiken kudeaketan

Nahitaezko praktiken antolakuntzan eta funtzionamenduan, eragile hauek esku hartzen dute:



- **Tutorea** da erakunde laguntzaile batean kanpoko praktika akademikoak egiten ari den ikaslearen jarraipenaz eta laguntzaz arduratzen den pertsona. UPV/EHUko irakasle-ikertzailea izan behar du.
- **Instruktorea** da kanpoko praktika akademikoak egiten diren erakunde laguntzaileko kidea. Haren ardura da prestakuntza jarduerak antolatzea, ikuskatzea eta ebaluatzea.
- **Praktiken programaren arduraduna** (aurrerantzean, PPA). Dekanoak pertsona bat izendatzen du campus bakoitzean, eta pertsona hori arduratzen da ikastegian kanpoko praktika akademikoen programa antolatzeaz, koordinatzeaz eta kudeatzeaz. Haren egitekoa da harremanak eta hitzarmen proposamenak sustatzea erakunde eta ikastegiekin, bai eta jada existitzen diren praktikak koordinatzea ere. Eginkizun hori bateragarria izango da barne tutoretzaren eginkizunarekin.
- **Erakunde laguntzailea** da UPV/EHUrekin kanpoko praktika akademikoak gauzatzeko akordioa egiteko gaitasuna duen enpresa edo erakundea, publikoa nahiz pribatua.

6. artikuluan zehaztu dira kide bakoitzaren eginkizunak, eskubideak eta betebeharrak.

3. artikulua.- Kanpoko praktikak antolatzea eta koordinatzea

3.1.- Antolaketa:

Zuzenbide Fakultateko Dekanotzaren ardura da antolatzea, koordinatzea eta kudeatzea Zuzenbideko eta Kriminologiako graduetako kanpoko curriculum praktikak.

Ikastegiko Batzarrak onartuko ditu jarduera horiek arautuko dituzten barne arau orokorrak, Dekanotzak proposatuta.

Dekanotzak izendatutako Praktiken programaren arduradunari dagokio antolatzea, koordinatzea eta kudeatzea ikastegiko curriculum praktikak. Hala eskatzen duenean, titulazioaren Praktiken Batzordeak lagunduko dio.

3.2.- Lankidetzaren hitzarmenak izapidetzea eta sinatzea

Zuzenbide Fakultateko dekanok izapidetu eta sinatuko ditu erakunde eta enprekin eginkizun hezkuntza lankidetzarako **hitzarmenak**. Hitzarmen horiek zehaztuko dira praktikak eskaintzeko prestakuntza proiektu batean (1. eranskina), praktika bakoitzaren xehetasunak jasota.

Gainera, hitzarmenetan zehaztuko dira erakunde laguntzailearen eta ikastegiaren betebeharrak eta eskubideak.

Praktiken programaren arduradunak izapidetuko ditu hitzarmenak eta adostuko du haien edukia, erakunde laguntzailearekin batera. Hitzarmena bat ez badator eranskin horrekin, Praktiken programaren arduradunak egiaztatu egingo du haren edukia egokitzen dela araudi honetara, espresuki hartutako erabaki bidez.

3.3.- Irakaskuntza esleitzea

Dagokien Sailen zuzendaritzak dekanuari proposatuko dio zer irakasle talde arduratuko den tutoretzaz ikasturte eta titulazio bakoitzean. Gainera, praktiketako orduak banatuko dira tutore horien artean, kontuan izanik matrikulatutako ikasleen kopurua.

3.4.- Praktiken Batzordea

Dekanotzari nahitaezko praktikak antolatzen laguntzeko helburuaz, nahitaezko Praktiken



Batzorde bat osatuko da, Fakultate Batzarrak hala erabakita. Kide hauek izango ditu:

- Batzordeburua
- Dekanotzaren ordezkaria
- Bizkaiko Atalaren ordezkari izango den batzordeburuordea (Zuzenbideko graduan bakarrik)
- Dagokien sailletako ordezkariak
- AZPko langileen ordezkari bat
- Graduen koordinatzaileak
- Dagokion graduako ikasleen bi ordezkari

Praktiken Batzordearen **eginkizunak** izango dira:

- Aztertzea barne tutoreek nahitaezko praktikaldiak iraun bitartean hartutako erabakiak.
- Salbuespen kasuetan, baimentzea nahitaezko praktikak osorik atzerrian egitea.
- Barne tutoreen informazioa jasotzea, garatu beharreko jarduera programari buruz.
- Gainbegiratzea ikasleak nahitaezko praktiken irakasgaiko taldeetan banatzeko prozesua, eta antolatzea talde horien ardura duten irakasleen irakaskuntza lana.
- Informazioa ematea nahitaezko praktiken programatik kanpo eginiko praktikak baliozkotzeko eskariei buruz, Fakultateko Akademia Antolakuntzako Batzordeak dagokion erabakia har dezan.

4. artikulua.- Nahitaezko praktikak kudeatzea

Dekanotzaren ardura izango da nahitaezko praktikak antolatzea, koordinatzea eta kudeatzea. Fakultateko Batzarrak onartuko ditu jarduera horiek arautzeko barne arauak (Araudia) eta dagokien sailekin elkarlanean aritzeko modua, aintzat hartuta dekanoren proposamena.

4.1.- Nahitaezko praktiken irakaskuntza araubidea

Nahitaezko praktiken irakasgaia ikasturte akademiko osoan garatuko da, salbuespen kasuetan udako hilabeteak barne hartuta, ikasleek behar bezala justifikatzen dutenean ezin dituztela praktikak egin ikasturte akademikoan zehar. Praktikak egingo dira dagokion enpresa edo erakundearen lan ordutegiaren barruan.

Kanpoko praktikak atzerriko erakundeetan ere egin ahal izango dira, Fakultateak eskaintako zentroetan edo autopracticumaren bidez hitzartutakoetan.

Nolanahi ere, atzerriko praktikek bat etorri beharko dute araubide orokorrarekin (hitzarmena sinatzea, kanpoko instruktorea eta barneko tutorea izendatzea, etab.).

4.2.- Kanpoko praktikak eskaintzea, haien berri ematea eta adjudikatzea

Fakultateak ezarriko ditu praktiken eskaintza osatzeko, haien berri emateko eta adjudikatzeko prozedurak. Horretarako, kontuan hartuko dira aurrez ezarritako irizpide objektiboak eta gardentasun, jendaurreko publizitate, irisgarritasun unibertsal eta aukera berdintasunerako printzipioak.

Kanpoko praktika akademikoen **eskaintzak** datu hauek izan beharko ditu (hitzarmenari erantsitako prestakuntza proiektuan adieraziko dira):

- Praktikak egingo diren erakunde laguntzailearen izena (sozietate izena) eta IFZ.
- Praktikak egingo diren zentroa, udalerrria eta helbidea.
- Egutegia: praktikak hasteko eta amaitzeko datak, eta iraupena (ordutan).



- Ordutegia: arduraldiaren edo lanaldiaren orduak egunean, eta esleituriko ordutegia.
- Prestakuntza proiektua, jarduerak eta eskuratu beharreko gaitasunak.

Praktikak antolatzean eta garatzean, ahaleginduko da praktikek ahalik eta ahalegin ekonomiko txikiena eskatzea ikasleari.

4.3.- Istripuen aurkako eta erantzukizun zibileko aseguruak

Eskola aseguruak estaliko du nahitaezko praktiketako egonaldia, 28 urtetik gorako ikasleen kasuan izan ezik.

UPV/EHUK erantzukizun zibileko aseguru poliza bat du, ikasleek praktiketara eragin ditzaketen kalteei aurre egiteko (nahitaezko eskola aseguru), 28 urtetik gorako ikasleen kasuan izan ezik.

Ez UPV/EHUK ez ikasleek ez dute beren gain hartuko inolako kalterik, kaltea sortu bada enpresa/erakundeko instruktoreak eman dituen eta praktiketako programarekin bat ez datozen agindu edo jarraibideetatik.

28 urtetik gorako ikasleek nahitaez kontratatu beharko dute eskola aseguru osatuko duen aseguru bat. Aseguru osagarri hori izan ahalko da UPV/EHUK hitzartuta duen CUM LAUDE istripuen aurkako poliza kolektiboa.

UPV/EHUrekin hitzarmena duten atzerriko unibertsitateetatik etorri eta UPV/EHUen praktikak egingo dituzten ikasleek izan beharko dute ere gutxienez CUM LAUDE polizaren antzeko estaldura eskaintzen duen istripu aseguru bat.

4.4.- Nahitaezko praktiken iraupena

Nahitaezko kanpoko praktiken irakasgaiak 12 ECTS kreditu ditu, aintzat harturik UPV/EHUren Zuzenbideko eta Kriminologiako graduen ikasketa planak.

Kanpoko praktiken kreditu bakoitza da, gutxienez, hamar ordu presentzialen baliokidea. Egoki irizten badio, Batzarrak erabaki ahal izango du hamar ordutik gorakoa izatea nahitaezko kanpoko praktiken irakasgaiaren kreditu bakoitza, betiere ECTS kredituei dagokien gehienekoaren barruan (25 ordu).

4.5.- Praktikaldia

Graduaren 4. mailako 2. lauhilekoa da nahitaezko praktikak egiteko ohiko garaia (beste irakasgairik gabeko garaia).



Dena dela, ikasleak beste edozein garai aukera dezake praktikak egiteko, urritik irailera bitartean. Hala eginez gero, gerta daiteke bat etortzea beste irakasgai batzuekin, eta onartu egin beharko du hori.

Praktikak egiten badira 1. lauhilekoan, matrikulatzeko baldintzak betetzen dituen ikasleak (tituluaren kredituen % 50 gainditzea) ziurtatu egin beharko du modua izango duela klaseetara eta praktikak egingo diren zentzora joateko (matrikula egin bada bigarren lauhilekoan irakasten diren aurreko ikasturteetako irakasgaietan). Alde horretatik, **Fakultateak ez du bere gain hartuko ikasleen matrikulaziotik sortutako gainjartze arazorik.**

4.6.- Ikasleak gainbegiratzea UPV/EHU n eta erakunde laguntzailean

Kanpoko praktikak egiteko, ikasleak izango ditu unibertsitateko tutore bat eta erakunde laguntzaileko instruktore bat.

Unibertsitateko tutorea izendatzean, kontuan hartuko dira araudi honetan irakaskuntza mota bakoitzerako ezarritako xedapen bereziak.

Unibertsitateak desgaitasunak dituzten ikasleen tutoreei emango dizkie beren eginkizuna betetzeko behar duten informazioa eta prestakuntza.

5. artikulua.- Praktiketako plazak kudeatzea

- Onarpena eta matrikula
- Adjudikatzea
- Autopracticuma

5.1.- Onarpena eta matrikula:

Ikasleak matrikulatuta egongo dira Zuzenbide lizentziaturako ikasketa planeko Nahitaezko Kanpoko Praktikak irakasgaietan, matrikula egiteko unibertsitatearen ohiko prozeduren bidez.

Behin matrikula eginda, ikasleek ezingo diete uko egin nahitaezko praktikei, justifikatutako eta gerora sortutako arrazoirik ezean. Arrazoi horiek Dekanotzak aztertuko ditu eta, hala badagokio, beste norbaiti adjudikatuko dio plaza.

Ikasleek uko egiten badiete nahitaezko praktikei beren kabuz eta arrazoi nahikorik gabe, ezingo dute beste plazarik eskatu hurrengo ikasturtera arte, eta **Ez aurkeztua** kalifikazioa jasoko dute uko egin duten ikasturteko deialdian.

5.2.- Irakasgaietan matrikulatzeko baldintzak:

Ezinbestekoa izango da gainditzea gutxienez titulua lortzeko behar diren kredituen (**120 kreditu**) % 50.

5.3- Plazak adjudikatzea eta adjudikatzeko irizpideak:

Dekanotzak ikasturtero argitaratuko ditu dagokion hitzarmena duten enpresa edo erakunde laguntzaileek eskainitako plazak, praktikak egiteko lekua, datak, ordutegia eta iraupena adierazita.

Ezohiko onarpenaldi bat ezarriko da Socrates-Erasmus Programako ikasleentzat.



Behin nahitaezko kanpoko praktiken irakasgaien matrikulatu eginda, plazen eskaintza argitaratzean, ikasleak bere lehentasunak jakinaraziko ditu, gehienez ere 8 plaza aurre-hautatuta GAURen.

Plazen aurre-hautaketarako epea amaitzean, plazak adjudikatuko ditu fakultateak. Horretarako, **ikasketa espedientearen batez besteko notaren** arabera ordenatuko dira hautagaiak, eta irizpide horren arabera adjudikatuko dira plazak.

Nolanahi ere, desgaitasunak dituzten ikasleek lehentasuna izango dute praktikak hautatu eta adjudikatzeko orduan, aukera izan dezaten praktikak egiteko irisgarritasun unibertsalerako neurri guztiak (garraioari dagozkionak barne) betetzen dituzten enpresetan.

Plazak eskaintzen dituzten erakunde laguntzaile batzuek beren gain hartu nahi izaten dute praktiketako ikasleen hautaketa. Kasu horretan, hori jakinaraziko da praktiken eskaintzaren zerrendan.

Kasu horietan, fakultatearen zeregina izango da horren berri ematea matrikulatutako ikasleei, eta erakunde horiek hautagaiak ebaluatzeko behar dituzten datuak ikasleek berek eman beharko dizkiete.

Erakundeek hautatutako ikasleei plaza adjudikatuko zaie, ikastegiak plaza onartzen dutela egiaztatu ondoren.

5.4.- Ikasleek proposatutako nahitaezko praktikak: Autopracticuma

Ikasleek beren kabuz bilatu eta proposatu ahal izango dute prestakuntza praktikak egiteko posturen bat, eta Dekanotzak aztertuko du postuaren egokitasuna.

Horretarako epea izango nahitaezko praktiketarako eskariak aurkezteko epe bera. Praktika hauek egin nahi dituzten ikasleek aurkeztuko dute Autopracticuma onartu duen erakundeak sinatutako agiri bat (2. eranskina), informazio hau jasota:

- Erakundearen izena eta IFZ
- Instruktoarearen izena eta NAN
- Egingo diren jardueren deskribapena
- Praktikaldiaren egutegia eta ordutegia
- Erakundearen instruktoarearen sinadura eta zigilua

Gainera, erakundearekin hitzarmenik ez badago, ikastegia harremanetan jarriko da harekin, hitzarmena izapidetu eta sinatzeko.

Dekanotzak irizpide hauek erabiliko ditu proposamena onartzeko:

- Erakundearekin lan edo familia loturarik ez izatea.
- Praktiketarako proposatutako eginkizunen izaera eta ezaugarriak.



5.5.- Nahitaezko praktiken ebaluazioa

- **Erakunde laguntzaileko instruktorearen amaierako txostena**

Praktikak amaitu eta gehienez ere 15 eguneko epean, erakunde laguntzaileko instruktoreak amaierako txostena helaraziko die Fakultateari eta ikasleari berari, praktiken ebaluazioarekin, dagokion ereduari jasotako xehetasunak azalduta.

- **Ikaslearen praktiken amaierako memoria**

Praktikak amaitzean, amaierako memoria entregatuko dio ikasleak unibertsitateko tutoreari, dagokion ereduari jasotako xehetasunak azalduta.

- **Praktikak baloratzea eta akreditatzea**

Unibertsitateko tutoreak praktikak ebaluatuko ditu, kontuan harturik instruktorearen txostena eta ikaslearen memoria. Horretarako, amaierako balorazio txostena beteko du, dagokion eranskinean zehaztutako xehetasunak jasota, eta dokumentu hori erabiliko da praktiken akreditazio dokumentu gisa.

Tutorearen ardura izango da praktikak ebaluatzea, kalifikatzea eta aktak idaztea, Ikasketa Planeko gainerako irakasgaietan bezala.

Tituluaren Gehigarri Europarrean jasoko dira eginiko kanpoko praktikak, dokumentu hori arautzen duen araudiak zehaztutako moduan.

5.6.- Jarduerak baliozkotzea:

Egoera jakin batzuetan, praktiketako egonaldia baliozkotzeko eskatu ahal izango dute ikasleek, irakasgaiari matrikulatu beharko badute ere.

- **Borondatezko praktikak:** curriculumez kanpoko praktikak egin izana akreditatzen duten ikasleek (oro har borondatezkoak, Praktikagesek kudeatuak) aukera izango dute matrikulatzeko kanpoko praktiken irakasgaiari, praktikak egin ondoren, matrikula egiteko ohiko epean barruan.
- **Eduki juridiko edo kriminologikoko jarduerak:** era berean, nahitaezko praktiketako egonaldia baliozkotzeko eskatu ahal izango da, baldintza hauek betez gero:
 - “Nahitaezko Praktikak” irakasgaiari onartua izateko eskakizunak betetzea.
 - Baliozkotzeko eskatzen diren jarduerak edukitzea Dekanotzak kontrastatutako eduki juridikoa edo kriminologikoa. Kasu hauetan, interesdunak egin beharko du zeregin horiei buruzko txosten bat, eta tutoreak programatutako tutoretzetan parte hartu.

Baliozkotzeari dagokionez, espresuki salbuetsita daude egoera hauetan eginiko jarduerak:

- C, D eta E taldeetako funtzionarioei edo maila baliokideetako lan kontratadunei dagozkien jarduerak direnean.



- Hirugarren mailara arteko ahaidetasuna dagoenean jarduerak egin diren enpresa edo erakundeetako zuzendaritza organoetako kideekin edo tutoreekin.

Baliozkotzea eskatzeko, eskaria egin beharko da Ikastegiko Idazkaritzan, matrikula orokorraren ohiko epean. Curriculumez kanpoko praktikak baliozkotu nahi izanez gero, Kanpoko Praktiken arduradunari egingo zaio eskaria; beste kasuetan, dagokion Praktiken Batzordeari.

5.7.- Irakasgaia ebaluatzea baliozkoturiko egonaldien kasuan

- Praktigesez kudeatutako borondatezko praktiketan, tutoreak kontuan hartuko du praktiketako ebaluazioa.
- Dekanotzak kontrastaturiko jardueretan, tutoreak irakasgaia ebaluatuko du ikaslearen txostenean eta tutoretzen ebaluazioan oinarrituta.

5.8.- Informazio konfidentziala

Praktiketan ari diren ikasleek konpromisoa hartzen dute ez argitaratzeko edo inori ez emateko enpresan edo erakundeetan lortutako informazioa, ez eta ustiatzeko ere hitzarmen honen xede diren praktiketan eginiko lanak, bai kasu batean bai bestean enpresaren berariazko baimena izan ezean. Konpromiso honek balioko du, nahitaezko praktikak egin bitartean ez ezik, gerora ere, enpresak berak ezarritako epearen barruan. Baldintza hau adierazi eta izenpetuko da praktiketako akordioari erantsiko zaion dokumentu batean.

6. artikulua.- Instruktoea, tutorea eta ikasleak: eskubideak, betebeharrak eta eginkizunak

6.1- Praktiken kanpo ikuskapena - instruktoreak

Instruktoe izateko baldintzak

Erakunde laguntzaileak izendatutako instruktoreak lotura izango du erakundearekin, lan esperientzia izango du, eta tutoretza lan egokia egiteko jakin beharrekoak menderatuko ditu. Ez da izango unibertsitateko tutoretza lana egingo duen pertsona bera.

Nahitaezko praktikak egingo diren erakundeak profesional bat izendatuko du, ikasle bakoitzaren kanpoko instruktore izango dena praktikaldian, eta koordinatuta arituko da tutoretzaren arduraren izango duen irakaslearekin.

Erakundeak izendatutako profesionalak (nahitaezko praktiken kanpoko instruktore gisa agertuko da sinatutako akordio edo eranskinean) izango du goi-mailako unibertsitate titulua edo gaiari buruzko lan esperientzia akreditatua, Kriminologiako graduaren kasuan, eta goi-mailako unibertsitate titulua, ahal bada Zuzenbidekoa, Zuzenbideko graduaren kasuan.

Instruktoearen eginkizunak

Kanpoko instruktorearen eginkizunak izango dira:

- Harrera egitea ikasleari.



- Antolatzea ikasleak erakundean edo enpresan egin beharreko lanak.
- Ikaslearen jarduerak gainbegiratzea eta praktikak orientatzea eta kontrolatzea, elkar errespetuan eta ikaskuntzarekiko konpromisoan oinarritutako harreman baten bitartez.
- Informazioa ematea ikasleari enpresaren edo erakundearen antolakuntzari eta funtzionamenduari buruz (helburuak, funtzionamendua, inplikazio deontologikoak, etab.).
- Programako jarduerak kontrolatzea ikastegiak izendatutako tutorearekin, eta sor daitezkeen gorabeheren berri ematea eta gorabehera horiek konpontzea, bai eta azterketak egiteko baimenak kontrolatzea ere.
- Ikasleak eginiko jardueren ebaluazio orria igortzea, hamabost eguneko epean, praktikaldia amaitzen denetik.

Instruktoarearen eskubideak eta betebeharrak

Eskubide hauek izango ditu:

- Bere lanaren aitortza jasotzea.
- Informazioa jasotzea kanpoko praktikak arautzen dituen arautegiari buruz, bai eta prestakuntza proiektuari eta proiektuaren baldintzei buruz ere.
- Unibertsitateko instalazioetara eta zerbitzuetara sartzea bere zereginetan (bibliotekak, mintegiak, etab.).
- UPV/EHUK "venia docendi"-a aitortuko die erakunde laguntzaileko instruktoreei, Campuseko errektoreordeak egingo duen izendapenaren bidez, Zuzenbide Fakultateak proposatuta.

Era berean, **betebehar** hauek izango ditu:

- Harrera egitea ikasleari eta hark egin beharrekoak antolatzea, prestakuntza proiektuaren arabera.
- Ikasleari ematea praktikak egiteko behar duen prestakuntza osagarria, bai eta ezinbestekoak dituen bitarteko materialak ere.
- Ikaslea bultzatzea eta animatzea berrikuntzak eta hobekuntzak proposatzera, eta ekitera.
- Erakundera sartzen uztea unibertsitateko tutoreari, haren eginkizunak bete ditzan.
- Isilpean gordetzea instruktore lanetan ikaslearen inguruan eskura dezakeen edozein informazio.



6.2.- Praktiken tutoretza - tutorea

Tutore bat arduratuko da praktiken tutoretzaz, dekanok izendatuko duena, kontuan harturik sailek eginiko proposamena. Dagokion jakintza arloko irakaslearen proposamena bidaliko dio sailak Dekanotzari, Irakaskuntza Antolatzeke Plana egiteko fasean.

Tutorearen eginkizunak

Tutoretzez arduratuko diren irakasleen **eginkizunak** izango dira:

- Dagokien ikaslearekin elkarrizketatzea, praktikak hastean.
- Egiaztatzea eta ebaluatzea programan jasotako jarduera profesionalak.
- Bilerak egitea edo harremanetan jartzea aldiaren behin ikasle bakoitzarekin, aurrez aurre edo bitarteko elektronikoen bidez, eskola aldiaren barruan, egiten ari den lanen berri izateko eta lan horiek ebaluatzeke. Bilerak egingo dira ikasleak eskatzen duen aldiro eta, ahal dela, 15 egunetan behin.
- Kontrolatzea ikasleek tutoreak edo instruktoreak eskatuta egingo dituzten lan osagarriak.
- Harremanetan jartzea aldiaren aldiaren praktiketako zentroko instruktorearekin, ikaslearen praktikak gainbegiratzeko.
- Edozein gorabeheraren berri ematea fakultateko Praktiken programaren arduradunari.
- Irakasle tutorea, praktiketaren gorabeheraren bat antzemanaz gero (adibidez, ikasleek gainbegiraleak emandako jarraibideak ez betetzea edo praktikek eduki juridikorik ez izatea), harremanetan jarriko da enpresa edo erakundeko instruktorearekin, gorabehera horiek zuzentzeko. Hori posible ez bada, Dekanotzara joko du, nahitaezko beste praktika batzuk adjudikatzeke ikasle bakoitzari.
- Oro har, tutorearen arduraldia urte osoa izango da. Hala ere, salbuespenak egin ahal izango dira, hilabetetik gorakoak ez diren unibertsitatetik kanpoko ikerkuntza egonaldietan edo antzeko beste kasu batzuetan.
- Bermatzea behar bezala betetzen dela prestakuntza proiektua, eta praktiken ordutegia bateragarria dela ikaslearen betebeharrekin (akademikoak, prestakuntzakoak, ordezkariak eta partaidetzakoak).
- Baimena ematea aldiak egiteko prestakuntza proiektuan.
- Tutoretzapeko ikaslearen praktikak kalifikatzea, kontuan izanik erakundeko instruktorearen ebaluazio txostena eta ikasleak eginiko jardueren memoria.
- Isilpean gordetzea tutoretza lanetan lorturiko edozein informazio.
- Gainbegiratzea eta, hala bada, dagokio, eskatzea, desgaitasunak dituzten ikasleek praktikak baldintza egokietan egiteko (aukera berdintasuna, diskriminaziorik eza eta irisgarritasun unibertsala) behar dituzten baliabideak.



Tutoretzaz arduratzen den UPV/EHUko irakaslearen eskubideak eta betebeharrak.

Eskubide hauek izango ditu:

- Bere jarduera akademikoaren aitortza lortzea, unibertsitateak ezarritako moduan.
- Kanpoko praktiken araudiari buruzko informazioa jasotzea, bai eta tutoretzapean izango duen ikaslearen egonaldia garatzeko baldintzei eta prestakuntza-proiektuari buruzkoa ere.
- Erakunde laguntzailera sartzea, bere zereginetan.

6.3.- Kanpoko praktketan ari den ikaslearen eskubideak eta betebeharrak.

Nahitaezko praktketan dagoen ikaslearen **eskubideak** izango dira:

- Tutoretza eta aholkuak jasotzea, ikastegiko tutorearengandik eta praktikak egiten ari den erakundeko profesional batengandik (instruktoarea).
- Plazen eskaintza edukitzea, plazak adjudikatzeko dataren aurretik.
- Praktikaren akordio edo hitzarmenaren kopia bat jasotzea.
- Eskola aseguruia izatea praktikaldian.
- Praktikak egin diren erakunde laguntzailearen amaierako ebaluazio txostena jasotzea, espresuki adierazita ikasleak eginiko lana, haren iraupena eta errendimendua, dagokion ereduaren arabera.
- Tutorearen kalifikazioa jasotzea.
- Desgaitasunak dituzten ikaslearen kasuan, kontziliatzea praktikak eta desgaitasunetik sortutako edo harekin lotutako jarduerak eta egoerak.

Behin ikasleari kanpoko praktikak adjudikatuta, **betebehar** hauek izango ditu:

- Praktketan hasia erakunde laguntzailean adostutako egunean, hezkuntza proiektuan zehaztutako ordutegia betetzea, eta erakundearen funtzionamendu, segurtasun eta laneko arriskuen prebentziorako arauak betetzea.
- Tutorearen jarraibideak betetzea.
- Tutoreari jakinaraztea praktketan sortutako edozein gorabehera.
- Tutorearekin elkartzea aldi-aldi edo harekin harremanetan jartzea bitarteko elektronikoen bidez, aholkuak jasotzeko eta praktikei buruz hitz egiteko. Bilerak edo elkarrizketak 15 egunean behin egingo dira gutxienez.
- Ikasleak praktikaldia eteten badu edozein arrazoi medio, berehala jakinaraziko die idatziz barne tutoreari eta Dekanotzari, arrazoiak azalduta. Etenaldia baldin bada praktiken iraupenaren % 25etik gorakoa, ikasleak berriro egin beharko ditu nahitaezko praktikak. Kasu horretan, ahal bada, ikasturte horretarako plaza bat eskainiko dio Dekanotzak.
- Ikasleak bere betebeharrak betetzen ez baditu edo praktikak uzten baditu, tutoreari arrazoi berri eman gabe, **Ez aurheztua** kalifikazioa jasoko du.



- Nahitaezko praktiken amaierako memoria egitea eta tutoreari aurkeztea, eginiko lanak zehaztuta.
- Isilpean gordetzea erakunde laguntzaileari buruzko barne informazioa, eta sekretu profesionala gordetzea erakundearen jarduerari buruz, bai praktikaldian bai hura amaitzean. Horretarako, ikasleak sinatu beharko du konfidentziasunari buruzko konpromiso agiria, eta Idazkaritzan entregatu.

Lehenengo xedapen gehigarria

Arautegi hau aplikatzean gorabeherarik sortuz gero, Dekanotzak ebatziko du, erabaki bidez, Saitetako zuzendariei eta ikasleen ordezkariak kontsultatu ondoren.

Azken xedapena

Arautegi hau indarrean sartuko da Fakultateko Batzarraren onespena jasotzean.